EIBARKO UDALAREN ETA VISESA SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEKO HITZARMENA. EIBARKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIKOTXONTA 125. JI EREMUAREN ANTOLAMENDUA KUDEATU ETA GAUZATZEKOA.

Eibarren, 2017ko azaroaren 22an

HONAKO HAUEK BILDU DIRA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL jauna, EIBARKO UDALAREN Alkatea, hitzarmen honen ondorioetarako, Eibar (20600) Untzaga plaza 1 helbidea duena, 2017ko urriaren 30ean Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakia gauzatuz.

CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ jauna, EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA sozietate publikoaren Zuzendari Nagusia, hitzarmen honen ondorioetarako Vitoria-Gasteiz (01013), Gamarrako atean 1-A, 2 solairua helbidea duena.

HAU AZALTZEN DUTE

Eibarko Udalak eta VISESA sozietate publikoak hitzarmen bat izenpetu zuten 2016ko maiatzean, xede zuena beharrezko ziren jarduketak egitea Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko Txonta 125 J.Iko Jarduketa Integratuaren hirigintza-garapena ahalbidetzeko, bai eta lankidetzaren bidezko jarduketa publikoz antolamendu-zehaztapenak gauzatzeko kudeaketa egiteko ere.

2017ko apirilaren 21an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia eman zuen, Txonta 125 J.Iren HAPOren 4. aldaketaren erabateko deuseztasuna deklaratuz. Deuseztasun horrek ezinezko egiten du HAPOren Txonta 125 J.I Jarduketa Integratua garatzea, indarreko araudia berriz ere 1988ko Arau Ordezkatzaileetan ezarritakoa izatera itzultzen baita; araudi horrek funtsean bizitegi-erabilerako eraikin guztiak eta industria-erabilerako gehienak finkatzea aurreikusten zuen.

Izenpetutako hitzarmenaren seigarren klausulak ezarritakoaren arabera, proposatutako antolamendua egikaritzean ezintasunen bat sortzen bada, VISESAk eskubidea izango du egindako gastu guztiak kobratzeko eta ordura arte benetan bete dituen kudeaketa-lanak ordain dakizkion.

Azaldutakoa kontuan hartuta, bi aldeek

HITZARTZEN DUTE

Elkarren arteko adostasunez SUNTSITZEA Eibarko Udalaren eta VISESA sozietate publikoaren arteko hitzarmena Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko Txonta 125 JI eremuaren antolamendua kudeatu eta gauzatzeko, antolamendua egikaritzeko ezinezkotasuna sortu delako, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2017ko apirilaren 21ean eman zuen epaiaren ondorioz.

Bi aldeek adostu zutenari jarraituz, VISESAK eskubidea izango du egindako gastu guztiak kobratzeko, baita ordura arte bete dituen kudeaketa-lanak ordain dakizkion; horretarako, faktura bat aurkeztuko du gastu horiek jasoko dituena, Hitzarmenean ezarritako irizpideei jarraituz.

Bi aldeak bat datozela frogatzeko, hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan, baina ondorio bakarrerako, goiburuan aipatutako lekuan eta egunean.

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL JAUNA
EIBARKO UDALAREN ALKATEA
EIBARKO UDALA

CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ JAUNA
VISESAKO ZUZENDARI NAGUSIA

ARANTZAZU ECHANIZ PETRALANDA ANDREA
EIBARKO UDALEKO IDAZKARI NAGUSIA